

"PRINCIPE DE VIANA"

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA. DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE


DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

DELEGADO DIPUTADO: M. J. URMENETA

Pamplona - noviembre - 1966

DIRECTOR: J. E. URANGA

OLITE: Erriberriko Gaztelua...



Aipatua izana da Erriberriko Gaztelua, Nafarroko Errege-etxe nagusia. Kanpotik ikustera etortzen zirenak, etzuten aski goratzen ahal! Ona emen amabost garren mendeko jaun aleman batek ziona:

«Erregegaia (Principe de Viana) bizi zen, Olite izeneko iri goxora etorri nintzan. Au zen, garai artan, Nafarroko errege; aita ez bezala obeditzen bai zuten denek. Jende guziekin asarraturik zebillen beti bere aita.

Serbitzari batek Errege edo Errege-gaiarengana sartu ninduen. Oso gaztea zen. Ongi artua izan nintzan».

Orai heldu da Gaztelu famatuaz diona:


«Serbitzariak barnea erakutsi zidan: segur naiz ez dela beste erregerik ain Gaztelu eta Jauregi eder, ainbeste urrezko gela eta ganbarekin duenik...

Ikusia dut nik eta ezin laike esan ez eta sumatu ere, zenbatetaraño ederra eta aberatsa den».

Rusia aldean izaten omen ziren, orduan, Errege-etxe aberatsenak; eta gorenaz au bezain ederrak izango zirela, esaten zen. Gure Erregeak, Auñamendiko bizkarretik Europa aldera begira bizi ziren. Ango aize berrien bolaran, argi-senti atsegin bat ikusten zuten. Nafarroak di-tuen jauregi, eliz eta santuen-iduri asko, beren denborako aurreratue-netatik dira.

Errege-etxeke semeak kanpoko eskoletan zebiltzen. «Principe de Viana» aipatu bai dugu, Italiako eskola oberenetan ikasi zuen. Musikari eta idazle bere sendimendu finak an orrestatuak zituen. Latinez, bere izkuntzan bezain trebe zen.

Delako aleman jaun orrek, zionez, josteta polita sortu zuten, gau artan, Erriberriko Gazteluan: Erregi-naren gelan sartuazi zuten. An zegoen etxekandrea bere neskatekin. Alemanez ari izan zien biak. Gero, atera gabe, berek oitura zuten beza-



la azken agurra egiteko agindu zion. Obeditzeko, belanez lurra jo eta eskuan musu eman zion. Eta ez ori bakarrik neskatek guziak banaka artu eta besarkatu zituen, eta aierie ere eskutan musu eman. Ura omen zen gorritzea! Lotsaturik gelditu ziren denak. Gogo txarretik obeditu zuten erregina. Europa aldera begi-

ra zegoen Naparroa, eta ango aizeak jotzen zuten aurpegian...

Gero, gerokoak. Beste Nafarroko jauregi on guziak bezala ankar gora bota zuten, eta gostaia da jasotzea. Gure Diputazioak, lan ona egin du Errege-etxe xoragarri au berritzean. Zorionak.

MUNDU ZABALEAN



—MANILA.—Zazpi errialdetako lendakariak bildurik, Vietnameko pakeaz ari izan ziren. Koropilo gogorra da nunbait an dagona. Eta beti jendeak hiltzen ari!

—U.S.A.—Johnson'ek 45 milla kilometro ateraldia egin du. Ego aldeko erriak ikusi ondoan ez da etxetik atera. Sendagillen eskutan da. Zerbait ikusi ta ideki beharra dute. Berak dionez ez da gauz aundia. Agerikoa!

Arte ortan zuzendarien aukeratzeari egin da. Johnson'en alderdia galdutan atera dela diote. Beste batzuk uste dutenez, berriz, Johnson beraren kontrako jokoa izan dute; ez bere alderdiaren kontrako. Nevada Gobernadore atera dena artzai eskualdunen semea da. Paul Laxalta'ren aita gaztetan joana da Ipar Ameriketara.

—U.R.S.S.—Errusiak berriz ere soldado geiago bialdu ditu Chinako mugara. 250.000 gizon baditu orai an. Komunista txuri eta orien arteko istillu gorri-gorria jartzen ari da.

—ALEMANIA.—Erhard izan denarekin, bota dute jarralki gorenetik. Au da gerla ondoko Alemania jaso duen gizona. Etsai gogorak zituen. Lau ministro liberalek jokoa egin diote; baño bere lagunak ere ez dute asko lagundu. Esker ona ez da politikako egina.

—ITALIA.—Makur aundiak izan dira Italian. Florencia inguruan arbol puntetaraño urak ikusi dituzte. Joan deneko zazpi ehun urtean ez omen zen alakorik ezagutu. Etxetako bigarren estairano igo dira urak. Ehunetik gora, hilak. Ezin esan da ango makurra zer den.

Los sucesos más destacados de política internacional han sido en esta temporada: la Conferencia de Manila sobre la paz del Vietnam y el periplo de 45.000 kilómetros que el Presidente Johnson ha realizado por Asia y el Pacífico. Posteriormente se anuncia que el Presidente norteamericano va a ser sometido a una intervención quirúrgica. Los republicanos han conseguido una clara victoria en las elecciones que acaban de celebrarse a primeros de noviembre.

Los rusos siguen reforzando la frontera china. Actualmente son ya más de 250.000 los soldados allí estacionados.

La dimisión de cuatro ministros liberales provocó una crisis gubernamental, que ha supuesto la caída del Canciller Erhard, en Alemania. Erhard es considerado como el padre del milagro alemán.

Asimismo las inundaciones del N. de Italia han causado numerosas víctimas e incalculables daños materiales. Se ha declarado catástrofe nacional.

(3'garren orrialdean jarraitzen du)



ESPAÑAKO GAUZAK

Japoneko eta Españaren arteko sal-erosketak bide onez dabilta. Eguzki aldeko erri ortatik etorritako ministroak zionez, gero ta artueman geiago dute Madrilekin. Emendik erematen dutena: burni egosia, arroz, itsas-maskulu eta gatz. Españak erosten dio altzairu, tresneri (makinak), kimika gauza eta perla-arriak.

Gure pezeta urtetik urtera apalduz, eroriz dijoa. Duela amar urte, 1965'an esate baterako, ehun peseta teila azpian sartu zituen gizonak, 69 pesetaren balioa zuen 1960'an. An gelditu balin bazen ogei duroko ura, asieran zuenaren erdia baño gutxiago balio zuen andik bost urtera, (49 peseta, 1965'ean). Aurten diruak ehundako amar galdu du. Zuri ehundako iru emanik ere, zuk zuretik ehundako zazpi galitzen zoaz. Zer egin? Behar den gautetan dirua sartu. Lurrak erosi, bizitegia txukundu, errementak egokitu, aberetegiak berritu, aurreri eskola eman; eta ez duzu askoz geiago izango. Edo bestela oso aberatsa zera eta ez duzu nere beharrik.

El Ministro de Asuntos Exteriores del Jajón ha visitado España. Se trata de intensificar los intercambios comerciales entre ambos países. Etsusaburu Ehiina dio cuenta del importante incremento que van experimentando estas relaciones. España manda lingote de hierro, arroz, mariscos, sal, etc. Importa acero, maquinaria, productos químicos y perlas.

Según cálculos realizados recientemente por los especialistas, tomando como punto de partida un índice de 100 en el año 1955, el valor de la peseta era de 69, en 1960; y de 49, en 1965. Depreciación media de 6'9 por cien al año. El índice depreciativo registrado en el ejercicio económico 1964-65 es de 10'7 por cien.

(2'garren orrialdean jarraitzen du)

ESKUALERRIKO LEIOA

- Agorrillaren 24 eta 25'ean Aita Larramendiren omenaldiko festak egin dira Loyolan. Orain ditu berrehur urte Andoaingo jesulagunak hilik. Gertaera au behar bezala ospatzeko billera aipagarriak egin dira. Lan maitu eta hehetasun baliosak jakinarazi dizkigute. Ssan ginezake, beste aita Larramendi baten neurria eman digutela Loyolan.
Dena merezi zuen. Zorrak ordaintzeko dira. Gain mailleko jakintsu, eskualtzale porrokatu eta gure gauzen maitale sutu onek egindako lana ez da nolana hokoa.
- Biarritz eta Bilbao gero eta gertuago. Airez-aire joan etorria egiteko tresnak ezarri nahi dituzte. Asmo ortan elkar izketan asiak dira. Orain lau orduz egiten den bidea, berrogei minutoz egingo omen laike. 60 franko (750 peseta) gostako litzake bidaya. Europa aldera idekitako beste atari bat bezala jotzen dute zorbaitzuk; eta bano etxe barruan askatzen diguten txoria, etxean geldituko da, gero ere.
- Bizkaiko bertsolarien azken sayoa Durangon izan da. Txapela Juan Lopateguik gelditu du. Lehen ere berak zuen eta beste urte batendako burua estalia du. Juan Mugartegui, bigarren. Biak Eskualerriko txapelketa nagusian sartuko dira.
- Gauza ilunak badira gure artean. Anai arteko ziriak ixiltzeko obeak dira. Baiño nolabeit ez den lehenbiziko aldia, esatea komeni da.
Antzerki saria, Larzabal jaunaren liburuak irabazi zuen. Norbaiti tri-pako mina eman zion, eta aitzaki ta maitzaki, itxura gabeko gauzakin, saria beste batentzat...
Orain galdera bat egingo nuke nik: «Agora» bezalako sariketarik mesedetan ditu Eskualerriak? Ez ginuke obe gure txirotasun eta barne eskasa geurekin gordetzea? zikoitzkeria...
«Dirua galgari», lenbiziko saria merezi izan zuen komediaren izena. Eta profezi kutsuko itzak gertatuta bezala, diru zikin orrek ondatu gaitu. Baiño, gizentasuna lehenago da.
Bigarren aldia da eskualtzain agurgarriari joko bera egiten dakotela: «Okillomendi Alkate» saritu zioten lenbiziko sariarekin, beste bein. Gero bigarren saria eman eta beste norbaitena zela esateko kopeta izan zuten. Egiteko baiño jasaitako obeak dira alako gauzak. Lotsa gorria dagigula!
- Berri ona. «Zigor» opera eskualduna «Vienako Synphonikak» emango digu. Datorren urri aldera Iruñen, Donostian, eta Bilbon entzuteko bidea izango dugu, naski. Bost milloi gostako da eta 65 jendeke parte artuko dute. Gaia, Kanpionen liburutik. Idazle Manuel Lekuona. Doñua, Escudero musikarari ospetsuarena. Opera onen oinarria Nafarroko errege Santxo Garzeis'en nagusegora heltzea.
Ongi etorri «Zigor» bezalako lanak.



EUSKALTZAINDIA

Dominique Peillen "Domingo Agirre" Novela saria- ren irabazle

«Domingo Agirre» novela saria Bizkaiko Aharro Kaxak sortu zuen Euskaltzaindiarekin bat eginik eta aurten Dominique Peillen-i eman zaien Itzal herrian deritzan novelagatik.

Juradua osatu dute Eusebio Erkiaga, Antonio Arrue eta Rikardo Arregi jaunak.

Dominique Peillen Parisen jaioa da guraso zuberotarrengandik

Oso ezaguna da euskal letretan eta lehendik ospea duena. Beste novela sari bat ere irabazia du.

Domingo Agirre saria urte birik bein ematen da. Toribio Alzaga teatroarekin txandaka. Datorren urterako, 1967, beraz, Toribio Alzaga teatro saria ematea tokatzen da, orainarteko oinarri berdiñakin.

Zuretzat; Neretzat; Biontzat.

Emen arkituko dituzun gauz oketatik bakarrenbat, on-ona dela ikusten baduzu, ez dela nerea siñes zazu. Liburuetatik biontzat osungarri den zerbait atera naiez nabil. launtzi bat edo beste (eta egia esateko, ez ain ongi ebakia eta iosia) nerea izatea, baliteke. Ez iauntziari begira gelditu: iauntzia daraman mamiari, erne egon.

Eskuetan daukaten liburu on batek itz okin asten du zurekin eta nerekin itzketa edo solasaldia (eta liburuaren iabeak barkatuko al daut bere gauzaz iaibiltze au: ebaskoarentzat zazpigarren agindu edo manamendua ere or izaki): «Noiz arte zuk zere barreneko orri bildur? Noiz arte zu zeroigandik igeska?»

Bi galdeera oietaz arritzen zera agian? Liburuia egin duena, ez da ba arritzen. Eta ez uste izan: ez da zaharra liburuia, ez ta egilea. Au, bizi da: lanerako adin eta sasoin oherenean dabil. Zer ikusi ote du gizon unek gazteen eta gazte ez direnen baitan, galdeera au zuri eta neri egiteko?

Barrenean daramaguna ezagutzea, noizko daukagu? «Noiz arte zuk zere barreneko orri bildur?»

Betiko gaitza au; egia; baiño oraiko gaitza batez ere. Geren barrenean daramaguna ezagutzeko geren barrenean sartzea, zer gauz zalla den! Zer lan bortitza zaigun!

«Noiz arte zu zeroigandik igeska?» Ordu bakoitzean nor geran eta non-nola arkitzen geran ohartzea gauz gogorra ta neketsua guretzat!

Zenbat aldiz ez gera ohartu gauz untan? Gurekin solasean, edo itzketan ari ta ari lagun bat: lagun au artaz eta untaz mintzo ta mintzo: lagun unek alako ta ulakoren utsak ager ta ager: eta uts oketatik, zein du geienik aipo? zein berari nazkaragriena iduri? bera maizenik eta osoenik erortzen dan utsa. Zergatik eta nolaz gertatzen da au? «Barrenekoari bildurrez» eta «beregandik igeska» dabillelako.

Gauzak aunitzetan bear bezala egin gabe utzi, zertaz? alaxe-olaxeoa bere lanetan bat, nolaz? Geiago oraindik: bera alaxe-olaxe ari dan lan beretan besteak txintxo, uts gabe ta asperkaitzak izatea billatzea, nundik? «Barrenekoari bildur» diolako eta «beregandik igeska» dabillelako.

Ainbeste ontasun ondatze, orrenbeste ordu ta egun arat unat ibiliz gaitze, ain erraz eta ohargabean itz eginez lagun urkoaren izen ona xautze, eta beste kalte aunitz eta aunitz, geren barrenekoari bildurretik eta geren buruagandik igeska ibiltzetik dator.

Batek bere barrenekoari ongi begiratzea, «txorakeri» aundia da txoroarentzat. Batek bere barrenekoari ongi begiratzea, «zentu onkoen gauza» da zentzu onkoentzat.

Txoroak dio: «Gerokoak, gero: goazen bide erraz eta goxotik». Zentzu onkoak dio: «Gaur erein; biar bil: munduan neke, zerruan poz: nerar garaituz, danen garaile». Eta ortarako, bere barrenean sartzen da: beregandik igeska ez dabil: bera nor ta nolako den iakin nai du: bere nortasuna edo «personalidadea» edertu nai du: behar bezalako izaten saiatu nai du: eta ortarako, on ez dan guzia beregandik kendu nai du. Eta on dana, egiz on dana, beti ta leku guzietan bereganatzera saiatzen da.

Zentzu onkoak egiz on dana billatzen duela esan datur. Untan ohar zaitze. Itxuraz ona dana, kalte izatea egiz, baleiken gauza da. Nik bezein ongi dakizu au.


Itxuraz ona danakin txoratzen dena, «barrenekoari bildur» gabean itzultzen balitz, eta «beregandik igeska» ibili bearrean, bere nortasuna edo «personalidadea» edertzen eta azkartzen saiatzen balitz, ez litzake dan bezein txoro izanen gaurko mundu eri ta indargabe au. Ez zaitzu ala?

Milla arrabots eta kukurruru entzuten da iendeen artean: baiño, berean tinko ta txorakerietatik bere barrena zizpotzeko eskindaiekin zaindurik daukena, egizko indartsu.

«Ez zazula itz ta solas dariola dabilen batean nolana siñets; egi-teetan iori dan batean baizik». Au ere liburuak dio. Nere burutik? Bai, to!

IBARRONDO

Aralar'ko Mikel sainduaren elizako erretabloa



Este precioso Retablo de Laminas de metal dorado y esmaltado con su imagen del Virgen del sagrario de la Catedral de Pamplona a que es anexo este Santuario de San Miguel estuvo antiguamente en la obscuridad de su Capilla de donde se sacó, se limpió en Pamplona, y para que su Vista mudara de posición fue colocado a su posición en esta Capilla mayor en el año 1765.

Aralar'ko Saindutegiaren Aldaren Nagusiaren erdian, zurezko atea izkutatu eta giltzapean gordea, Aldareburu ospetsu au kokatua dago.

Paper zaharrek diotenez, gure Santxo Aundia Erregeak Aralar'ko Leku Saindu oni eman zion.

1028 urteren inguruan uste denez, Erdi Aroko lenen denboretako edergilleek egiña da. Nungoak ziren egilleak erraiteko zalantzetan daude jakintsuak, izan ere Limogeskoak zirela erraiten dutenek badira, eta baita Verdungoak edo Eguzkialdekoak baiezten dutenek ere.

Arrigarrik eder-lanketa bikain au brontze gorri-beltzekoa da, maillulandu, apaindu eta esmaltez pikailatua (esmaillatua), ala nola arribitiz aberastu eta jorritua.

Burgos'ko «Museo Arqueologico» delakoan Siles'ko Domingo Sainduaren erretabloa badago Aralar'ko Erretabloarekin bere antza, kerantza edo eite duena. Baiño gure erretabloak Burgos'koak baiño bi aldiz geiago-ko neurria badu, eta ontaz gañera are pitxiago eta baita ainitez obeago ere.

Bizantinoen lankeraz egiñikako munduan ezagutzen direnetatik lenbiziko ederlanda da.

Artelan ziragarri ontan dauden gizairudiak auek dira: Ama Birgiña, Apostoluak, Ebangelariak, Mikel Goingerua eta bi gizagume irudiak zeintzuek dira inork ezdakiela. Batzuek diotenez Konstantino Erregearen irudia eta bere emazte zen Elena Sainduarena dira; baiña beste batzuek badira ere Nafarro'ko Santxo Aundiaren irudia eta bere emaztearena direla ustean egonak.

Aintzineko ederlandeketa ikusgarri onek balio ikaragarri dauka, konta ezin ezduena eta erretablo soillik ikusteko Aralar'raño igotzea merezi duela uste dugu.

Españako...

(1'garren orrialdetik)

Gibraltar gora eta Gibraltar behera, aski istillu badugu azken aldi ontan. Inglaterrak ez du irabaztekorik Españako lur-aztal ortan; gaitzeko aundirik ere ez. Gertatzen dena beste gauza bat da: jauntxo baten izen ona, fama, dirua baiño geiago itsasten den errekeitua da; eta ingelesak jaun undiak izanak dira. Bestela nola utzi behar zituen Suez eta diru-bidean joan-etorri aundiko lurraldeak? itzik atera gabe, gañera; eta galduan ere Gibraltar bere-tako nahi du.

Bestalde, ezkerreko begitik sartuak dituzten gauzak ere baditugu gaurko egunean, eta Gibraltarreko aitzekian denak atera dira. Aurkeriak...

Lege-askatasun geiago eskatzen zuten Barzelonako ikasleak ixiltzen asiak direla badirudi. Garai batez, aski gaizki ibiliak dira. Beren gustoko elkargoa (Sindikato libre) egiteko eskubidearen ondotik zebiltzen.

I.N.I.'ez da beste enpresak bezala: gobernuarena, baizik. Ortako, ez du diru eskasiarik. Ehun milla millon peseta aisa esaten da. Diru alde ori guzia du bere eginbidetan sartua. Lauetatik bat, gobernuaren poltsatik ateraia; eta beste iruak bere irabazbidetatik.

Ogeitabost urte betetzen ditu orai eta ez da aurra. Ortako galdetuko nioke: 1.º) Langileak izan dute irabazi oietan artzekerik? Edo asieran bezain mutil dira oraindik! Langillen eskubideak ez dira bakarrik naguse txikien lantegitako eginak. 2.º) Eta lan oiek ber-berak egin nahi dituzten fabrikendako ez ote da aztapu aundiegia izango «konpertzian» gobernuaren makina aundia beti beren etsai bezala ibiltzea? Berek egin dezaketen lana balin bada, beintzat...


Impuestas las últimas restricciones aduaneras a Gibraltar, la población calpense se siente molesta. Inglaterra propone llevar la cuestión al Tribunal Internacional de La Haya. España no ha contestado oficialmente a esta propuesta que se considera meramente dilatoria del problema central de descolonización.

Barcelona.—Parece que vuelva a normalizarse la situación estudiantil, con la reanudación de las clases.

El volumen económico de las empresas patrocinadas por el INI (Instituto Nacional de Industria) se aproxima a los 100.000 millones de pesetas. De ellas, una cuarta parte corresponde al desembolso del Gobierno. 75.000 millones proceden de la autofinanciación. Pertenecen al INI la totalidad de los transportes aéreos españoles; el 62 % de la producción de vehículos automóviles (SEAT y PEGASO); el 52 % de aluminio, etc. Esta institución cumple ahora los veinticinco años de su actual existencia.

BERTSOLARI TXIKIA

Doneztebe'ko Euskal Bestan Leitze'ko gaztetxo batek bost bertso kantatu zituen Bestari buruz. Auek dira Jose Luis Azpiroz'ek kantatuko bertsoak.



— 1 —

Erri ontara lenengo aldiz
Gaur etortzen nai zala
Txoko polita izango-otetan
Nago tankera emana
Agurtu nai nituzke-agintari
Gañerako jende dana
Lagundutzeke emen daukagu
Gure Principe de Viana.

— 2 —

Lenengo Zarrak jarria dala
Ezin gentzake ukatu
Eta euskeraz itz egitea
Ez da izango pekatu
Ondo da gogoz erakutsia
Goguan bear da artu
Galtzera ez du merezi eta
kontu egiten saiatu.

— 3 —

Nik uste-ez dala kalte izango
Danetara jakitea
Ondo egiña ez alda bada
Zeñi berea-ematea
Alkarrentzako guziok bear
Genduke borondatea
Da iñor ez dedilla lotsatu
Euskeraz egitea

— 4 —

Jakiteak kalterik ez dio
Egiten batere iñori
Neri-iduritzen zait bearrezkoa
Ta-atsegiña dala ori
Txutik ez badiegu kontutzen
Iguar lurrera erori
Da gurasoak saia-erakusten
Zuen aur umetxoari

— 5 —

Nai ainbat aldiz ez da izaten
Gaur bezalako eguna
Umindadean bizitzen saia
Guk egin bear deguna
Gauzik obena ez alda bada
Alkarren maitetasuna
Diru bakarra ez da munduko
Poza ta-aberastasuna.

¡ARTZAI GIZAGAXOA!

— I —

Aritzutik Luberbera
egin nintzen torri,
lana franko eman diot
nere buruari.
Hazienda polit bat
egin nuen karri;
berriz ikusiko oteut
eun buru ardi?

— II —

Beti esaten nuen
aitz bildur nintzela:
motiboa torri da,
nik erran bezala.
Enfermedade ortatik
Jainkoak gorde gaitzala
alako ardi izateak
batere ez bezala.

— III —

Lenbixikan dira
banaka, biñeka,
beti ikaraturik
oiei begiraka.
Den gutxina asiz geroz
illetik tiraka
antxe daude serio
lurrera botaka.

— IV —

Bat txutitu orduko
bestea erori;
¡A zer konsueloa,
Biotz altxagarri!
Amaika tristuria
eman dira neri.
Gustoa artu duana
Konsolatu bedi.

— V —

Egun batez joan nintzen
aize otzarekin,
Kazkaarra barra-barra
l'orma ai zuen biñipin,
arratsian etxera
nere ardiekin;
dozenerdi bat buru
bere koloeekin.

— VI —

Etzera torri eta
triste biotzian.
Zer kusi bear oteut
aurtengo urtian!
Gaua pasatu eta
biramon goizian
zaldalia ematia
naiz gogo txarrian.

— VII —

Kontu oiek izotz-illan
ziraden bai, gero
asizgeroz jakitia

— VIII —

Izotz-illa joan eta
otsailla tokatzen,
illabete prestua
nekez ateratzen;
ez nazu broman ari
bertsuok paratzen,
oraintxe ari dire
koloak bakantzen.

— IX —

Oiek izan banitu
buru ordañian,
ja zer eskarmentua
gero azkenian
entregako denbora
etortzen denian
gizena idukoitek
oiek nienian

— X —

Larruketaria ere
asi da aspertzen,
oiekin ez duela
deusik ateratzen;
pixkat tiratuz geroz
nondiñandik austen.
Orain asiak gera
bere gixa uzten.

— XI —

Kaikua artu eta
joan naiz artzegira.
Orain ere koloak
berriak ba-dira;
ezkera indartuko, len
me-xamar ba-gera;
noizpaiz ere moduko
aldatuko al dira.

— XII —

Orra amabi bertsu,
nai tuenak ikasi
motiborikan gabe
eznindoen asi,
gustu duenari
nai tut adirazi;
haziendarik gabe
emen ezin bizi.

— XIII —

Amairugarrena
bota dut neria
Argi esan bear dut
nor duten jabia.
Antonio Ozarra da,
¡au miserabilia!
oiek baño obe dik
batere gabia.

Onela izentatu ditut Ozarraren aspaldiko bertso oiek. Berrogei urte nonbait or ditu Olagüen bildu nitula. Ordoko bertso zarrak bezala esan zizkidaten. Bersolaria Aritzu bereko seme zen edo beste nonbaitekoa ez nun ikasi.

Berso auetan Naparroko bi alderditako itzak nasten ditu. Aritzun eta aren inguruko errietan bezala derabilzki: «Aitz bildur», «lana franko», «orma» (izotza) «izotz-illa», (il-beltza), «multzo» ta. Baño «Yainkoa, berzia, yakitia ta yabia» esaten zizutenean ordez: «Jainko, beste, jakitia ta jabia» derabilzki. Beste bertsolarien kutsuz artuak ote zitun; edo-ta Luberben ala esaten ote zen, ez nezake esan.

Aditz batzuen erabilkerak bere gixekoak ditu: «torri, karri, kusi», etorri, ekarri ta ikasi'ren ordez. Beste batzuetan alderdi aietako erriarren erara esaten ditu. «Oteut, idukoitek, tut», «ote dut, idukiko ditek, eta ditut» bearrean. Azkeneko «tut» ori euskalki artan alaxe esaten da non-nai.

Iru itz ez ezagunak ere ba-darabiltz: «nienian» (gierrian) esateko naski; ta beste biak «nondiñandik» (nondinaitik) esateko, ta «lenbixikan» (lenbixian edo lenbixian) esateko.

Idazle geienok ba-dugu zerbait onik beragandik ikasteko. Gaurko geienok ekarri nuen, etorri nintzen, esango giñukenean, berak «ekarri egin nuen, etorri egin nintzen» esaten du, Altube'tar Xeber euskaltzain jakintsu ta argiak erakusten zigun eran. Egia da, bai, bersorako obeki zetorkionez berak «egin nintzen torri, egin nuen karri» esaten digula. Baño erabilkera jator eta erriar ori gogorazten digu.

INTZA'R DAMASO

Mundu zabalean

(1'garren or ialdetik)

—GALES.— Ikatz mendi batek azpian lertu du aur txikien eskola bat. Ehun eta berrogei ta amar jende hil dira. Geienak aurrak.

—Azken izartegiko tresnetan ru-soak «Molniya I» atera dute. Lurretik asita gidatzen ahal omen da bere joan etorritan. Frantziarekin adiskidantza aundian baidira, bien telebistako programak koloretan emateko balio izan behar du.

Frantzia esan eta, aundia egiten dute beren Rusiako urrutizkiñarekin (telefonuakin). Bide motzera Alemaniak zutelarik, Alemaniarekin ikutu gabe, Suiza eta Txekoslovakiatik botako dituzte ariak. Txakurra ta katua bezala?

Dos cataclismos de resonancia internacional: el corrimiento de una montaña de escombros carboníferos sobre una escuela de párvulos, en Gales, ha originado la muerte de 150 personas, en su mayoría niños.

Un nuevo ingenio espacial, el «Molniya I», accionado desde la tierra, acaba de ser lanzado por los rusos. Se servirán de él conjuntamente Rusia y Francia, para enlace de la televisión en colores.

Se anuncia oficialmente que la línea del teléfono rojo que enlazará París con la capital rusa, no atravesará territorio alemán. La línea más corta entre ambas capitales hubiera discurrido a través de Alemania.

Amatxi zaharrari

— 1 —

Amona zarra bizkar makurrak
mendira artu du bidia.
Ordeka ez noski ez bada malda
luze, gogor ta pikia.
Eguneroko lantegi bera:
Arbazta egurra jextia.

— 2 —

¿Nolaz amona, zuaz orrela,
amona zar ta maitia?
¿Ez al da oraindik zabal ideki
zure zorionen atia?
¡Goruntz hazuaz estu ta larri:
auxen badezu nekia!

— 3 —

Bidetxiorra estua da ta
larraz dago estaliya.
Pausua ematen ez da erraza:
ateratzen da izerdiya.
Alako batian, lurrera, ¡danba!
¿Ainbeste du mereziya?

— 4 —

Noizbait eldu da amona zarra
mendi gallur goyenera.
Arri gañian exeri eta
begira dago ingurura.
Gero burua goratu eta
begiratzen du zerura.

— 5 —

Zeru ederra, urdiñ-urdiña,
garbi-garbiyen tokiya,
¡bai daukazula irabaziya
zure lanaren sariya!
Otoitz xamurra ezpañetatik
sortzen zaio pozgarriya.

— 6 —

Berriro bera begiratzen du;
berriro bera, lurrera.
Nigarrez dago ase eziñik
umezurtzaren antzera.
Iñun badago errukarririk,
amona maite, bazera.

— 7 —

¡Ainbat arantzak zulatu dute
bere biyotz maitekorra!
Ainbeste seme azi ezkeroz
ordaintzat utsun legorra.
¿Nun dira semek? Atozte, atozte;
bada oraindik denbora.

— 8 —

Artzen du amonak zama egurra
bere sorbaldagañian.
Abitu zaigu goitikan bera
neke samiñen nekian.
Emen makurtu ta gero zutu,
oñaz bide lakarrian.

— 9 —

Egarritu da, ta ara nun jene!
arkitzen dun atsegiña.
Ur garbi preskok kenduko diyo
sukarren idor larriya,
antxen dago ta bide bazterrian
agor gabeko iturriya.

— 10 —

«Eskerrak, Jauna, biyotzetikan;
artu det ta mesedia.
¡O zeñen ona zeran egitan,
nire Jabe Egillia.
Betor nigana bete-betian
zure iraunkor graziya!

JOAQUIN ALDAVE-k




**Euskera zarrari
buruzko bertso
bat Arozame-
nak bialdu**

Jakiña dago gure izkun-
tza

eztala sortu berria,
irurogei ta amar etxalde
ziran garaian jarria.

Babilonian izandu zuten
naspillu izugarria,
orduko da guk orain
degun

Euskera maitagarria



Euskaldunak Ameriketean

Kolon Jaunak Amerikako lurraldea ezaguarazi zuan eskeroztik, Euskaldunak Amerika aldera izan dugun joera izugarria izan da. Euskal arrantzaleak Amerikako itxas-ertza Kolonek baño askoz ere lenago ezagutu zutela diotenak ere ba-dira, baño Amerikan diru mordoska bat eginda, sorterrira itzultzeko ametsa Kolonen ondorean sortu zan.

Kolonen ondorean gure Naparro zaarretik lenbizi joan ziranak, gerra-gizonak izan ziran. Istori-zaleak diotenez, lenbizi-lenbizi joan zan, Urrotz Pedro Iruñako semea izan zan. Onen ondorean, oso famatua izan zan Ursua'tar Pedro baztandarra ere. Kolonbiako Iruña eta Tudeia izeneko uriak baztandar orrek sortu omen zituan.

Aren ondorean Artiedako Diego ere oso ezaguna izan zan eta orain «Costa Rica» dagon lekuan «Naparro herria» onek sortu zuan eta Naparro herri ortako Artieda eta Esparza izeneko bi erri ere bai.

Ondoren gerra-gizon pranko izan ba-dira ere, diru billa joan diranak askoz ere geiago izan ziran. Millaka ta millaka dira orduezkero itxasoa igaro dutenak. Amerikako lurralde orrek era berexi batean killakortu du Euskaldunen biotza. Berrogei ta amar urtetan ongi igarotako Sunbillako gizon bat, Ameriketara zijoalarik, orain berriro arkitu nuan Bilbaon.

Amets oietako asko ta asko egi biurtu dirala ezin ukatu. Baño, ta amets utsetan gelditu diranak zer?... Arjentinako Panpa zabalak eta Nebada eta Kalifor-

niako mendi zokoak itzegiten ba-lekite... zenbatez ez bear eta naigaberen berri emango liguketen! Zenbat naigabe biotzetan! Zenbat negar begietan!

Nero erriko pralle Kaputxino batek, Ameriketean zegoen gure erritar batez esan zidana askotan burura etorri zait. Gure erritar gizarajoa, berrogei ta amar urte luze ta neketsu Ameriketean igaro ondorean, zarra ta makala, metxero arriak saltzen arkitu omen zuan Buenos Airesko uri zabalean, pralle onek.

Ondasun billa joan ta premi gorria igaro ondorean, beren ezurrak an utzi dituztenak ezin konta ainbat ba-dirala, ziur nago.

Orain urte batzuek «Auspoa» liburu sortan Bedayoko Euskaldun bateko bere Ameriketako burrukak kontatuz otera zuan liburuxoa ez da gero berriketa!

Urrutiko intxaurrak beti beteak diradela dio gure esaera zaarrak. Baño inguratuta ondorean zer? Utsak arkitzen askotan!

Gure Euskaldunak Ameriketean igaro dituzten burrukak, ez-bearrak, zoritxarrak, nai ta sorterrira itzuli gabe il bearrak ez al lukete merezi monumentu bat? Gure lparragirre zaarrak ongi aski esan zigun itz gutxitan sorterritik urrun dabillanaren gaitzik okerrean zein dan:

Errialde guztietan
leku onak ba-dira...
baño biotzak dio
zoaz Euskal Errira!

«AUNAMENDI!»

NAPAR BERTSOLARIEN ZEINGEIAGOA

Mikel Arozamena Lesakako. Txapeldun



tara joan bear izan zelako bere ezin etorria bialdu zuen garaiez, eta Uhizi Aranoko, gorritarraren partez, etorri zen (Eskerrik aunitzetan Mañuel), Azken orduan, saioaldia asi zanean, Lesakako Muxikak jakin-ean jarri zittuen antolatzaillai esanez bera goatzean (ogean) gaixo zegola eta etzuela txapelketara etorri ahal izaten. Muxikaren mezua beranduegi allegatu zan eta bertsolari onen partez etzuen beste bertsolari batek Iruñe'ra etorri ahal izan, damurik.

Auek dire Teatron agertu ziren bertsolarien izen, deiturak eta erriak: Mikel eta Manuel Arozamena, Lesakakoak; Bautista Madariaga, Arantzakoa; Martin Oreja, Errazkingoa; Angel Aldatz, Udabekoa; Manuel Uhizi, Aranokoa, eta Andres NARBATE, Goizuetakoa. *Maiburuen izenak* (Juradukoak): Satrustegi, Diez de Ulzurrun eta Zabala, Apezak; Izeta, Irigaray eta Diez de Ulzurrun jaunak; *Zuzendaria*: Bilbo'ko Alfontxo Irigoyen. Denak Euskaltzaindikoak (Euskal Akademikoak).

Lenengo saioan lau bertsolari izendatu ziren (Arozamena zarra, NARBATE, Oreja, eta Madariaga) aurrerri pasatzeko. Saioaldi ontan aixo maiburuak bertsolari onenak bereizi zituzten.

Bigarren proban Oreja kanpoan gelditu zan, eta beste gañerako iru bertsolari artean, au da, Arozamena, NARBATE eta Madariaga, bat atzean uzteko maiburuak eztabaitak izan zituzten eta iru bertsolariak beste saio bat egiteko erabaki zuten.

Iruigarren jardunaldian, beraz, Arozamena, NARBATE eta Madariaga aritu ziran, eta probaketa ontan gauzak argi eta garbi jarri ziren, eta Juradukoak ao batez erabaki au agererazi zuten: Arozamena Naparro'ko Bertsolarien Irabazle eta Txa-

pelduna, eta NARBATE, Bigarrena. Txapelketa au beste lengo txapelketan ederrena, gogorrena izan zan. Burruka atsegingarria izan zan denentzako, baño bakezko burrukaldia jakiña! Gogorra izan zan, alajaiña, bigarren saioketan bi bertsolari berrextal!

Badugu beraz, Naparro'ko orde-kariak Euskalerrri'ko Zeingeiagora joateko. Bizkaiaik ere baditu bere ordekarriak: Lopetegi Muxikako, eta Mugartegi Berriatuko. Mugz beste aldeko anaiek uste dugu Xalbador Urepelgo (Nafartarra) eta Mattin Ahetzeko (Laburdikoa) izango dituztela bereziak. Eta Gipuzkoa'n zer? Oraindik ezdituzte Alderdiko txapelketak bukatu. Espero dugu, aurki, al den ariñen, akituko dutenik bere Txapelketa.

Zorionak Diputazioari, Euskaltzaindiari (Euskal Akademiari), Txapeldunari, bigarrenari eta baita ere napar bertsolari guziei.

IKUSLE



Se autoriza la copia para la investigación.
© GOBIERNO DE NAVARRA

SALDIS'KO ERRIARI

Saldias'ko Erretoreak amabost egunetik amabost egunera «Artzai Deia» izena duen Parrokiako Orrialde bat argitaratzen du, mundu ontan dauden saldistar guzientzako. Ona emen «amabostaldiko» onetik artutako bertso auek, Saldistar gazte batek jarritakoak:

Lenbiziko bertsoak
Saldis erriari
jartzeko asmoetan
ementxe naiz ari.
Lenbizi agur egiñez
gure aita-amari
ta ondorean berriz
saldistar guziera.

Aurreko egunean
amak esan zidan
karta bat oso alaia
egin baitzidan,
mantxo-mantxo irakurriz
zer esaten zidan:
beldur naiz ume auek
nasi ote zaizkidan.

Gure erriko berriak
zaizkit goxagarri
"Artzai Deian" poz-pozik
ditut irakurri.
Eskerrik asko gure
artzai maiteari
jartzen dizkigulakoz
berriak ugari.

Nere ama maitea,
oi da gurutzea,
aurrari nai dutena
egiten uztea;
negar malkoetan zu
ama ikustea
neretako orixe da
bizia kentzea.

Kamio ta bideak
ari dira egiten
eta karrikak ere
argi-argi jartzen.
Erritar eta arrotzak
izan dira ikusten
ta orko aize onak
ongi ditu artzen.

Gizon buru xuriak
zer duzute esaten
ikusiz gaztedia
nola den portatzen?
Zuen oitura onak
ari dira galtzen.
Txapelik ote duten,
nago ni pentsatzen.

Neska geienak ere
ai dira enpleatzen
etxe mutillak berriz
etzaizkigu zartzen;
ainbeste aldakuntza
ditugu ikasten
"Artzai Deia"ren" bidez
baiditut jakiten.

Lau neska arro-arro
asi dira baltsan,
izena jakin banu
jartzekotan nintzan;
nere biotza daukat
zauri gorrietan
ta laixter lertzeko prest
negar malkoetan

Gaztedia lau alde
emen da partitzen,
elkarrekin oso ongi
ezdira konpontzen;
Eliz lanetan berriz
emen dira atzentzen;
lan franko emango dute
olakoak zuzentzen

KIROLAK



AIZKOR - APOSTUA BERROETA'N

San Martin irugarrenean Azaroaren 13'an, Berroeta'ko errian aizkora apostu polit bat izan zen. Latasa sunbildarra bakarrik, berroetar Altxuarte bi anaian kontra, alde bako-txak amarna onbor metro inguru-koak moztu beharrak zituztela eta berroetarrak onbor erdietan txandatu-z. Borrokaldi atakatu izan zen bi eskualdeak beren ahalmen guziak erakutsi zituztela. Azken onborre-raño berdintsu ibili ziren bainan Latasa sasoin izigarrian zagon eta doi doian sei edo zortzi kolpez apostua irabazi. Zorionak irabaztunari eta bai galtzaleeri ere. Badirudi Latasa ongi dagola eta berak dionez edoze-ñekin yokatzeko prest. Orain dato-rren Abendoren 11'ean, edo 18'an, apostu bat yokatu beharra omen du Zeberio gipuzkoarraren kontra eta gañera bizpauri onborren bentaja ematen diola. Ikusiko dugu zer ger-tatzen den.

M. I.

ERRIZ - ERRI



SALDIAS

USUAK

Usu franko pasatzen da aurten. Igaz baño askoz ere geiago. Uste dugu eiztariak kontent egingo direla beren afizioari asealdi on bat emateko bidea izan dutelako. Eiztari zarrak «biktor» gogorak kontatzen ziztuzten. Bein bateri entzun izan nion: «Nik, egun batean lekutan, tiro batekin bederatzi usu bota nintin» eta olako amaika nork ez ditzu aditu izan. Gezurra edo egia, eiztariet beti gauza den baño geiago errateko oitura dutelako fama eman izan zaio.

IRATZEAK, GAZTAÑAK, ONYOAK

Gure erritar maiteak iratze-lanak aurreratuz dihoaz. Larreak iratze «motaz» edertuak ikusten dira. Denborak ola laguntzen badu illabetea au bukatzerako geizkoenak egingo dira.

Gaztañei kaso gutxi egiten zaio. Aurten ezta esatekorik. Oraindik ezduz inor sumatu gaztañetan ari dela. Gutxi da eta ura oso txarra. Laster jatekotan erosi egin bearko dugu. Aurten lendabiziko gaztañak amairu pezetan saltzen omen ziran. Oraindik amaiketan saltzen omen da.

Onyoak ateratzen asi dira. Aurten oso berandu, emen beñipein. Igaz bezelako ausartitasunen konturik ezta entzuten. Igaz Zokoaldi orretan milla pezetako franko artu ziztuzteneko kontuak ziran. Aurten bazterrek ixilik daude. Ala ere, Donetxe aldean kiloak amar duro egiten dulako berriak dira.

ESNEKETA

Erriko esne-saltzale guztiak zo-

rionetan daude. Aurreko astean «Copeleche»-koekin egin dute bilera Labain'en. Esne-elkarketa orrek, urte batean egin dituen irabazietatik, eskura litroko amarrena sos (0'50 xentimo) eman dizkie. Ikusten da, azkenean, saldu duten esnearekin litroko 6 pezeta artu dutela eskuan, eta pentsatzen dugu bakoitxak duen agirian (libretan) beste zerbait ere jarri izango diotela «Copeleche»-ren zorra osoki ordaindu arte. Illabete ontatik aurrera 6'50 (sei t'erdi) litroko ordainduko omen diote. Berrito Espaini guztian litroko pezeta bat garestitu baita. Datoren urtean, Jaungoikoak nai badu, uste dugu aurten bezela, dabillen prezioz gañera, «Copeleche»-ren sarturik daudenak beren irabaziaz izango dituztela. Onek adieraztera ematen du «Copeleche»-en sartzea esne-saltzallentzat mesede aundia bat dela.

LEITZEN NEKAZARI-ESKOLA

Amalautik amasei urte bittarteko mutil gazteentzat dira eskola au.

Gastuak libre ditzuzte. Nekazari lan eta azindien goraberak erakusten dira. Gure baserriarrak eskolaxe billatzen da. Ikaskizun auetan parte artu nai duenak lenbaitlen esan beza.



BAZTAN

Aurtengo Elizondo'ko Urriko ferietan izigarriko eguraldi txarra izan dugu, egun guzian euria atertu gabe aski denbora latza eta elurra mendietan, egun ortan guardasolak bazuten errete. Baina ikusia dago euri erauntsiak eskaldun yendea ezuela izitzen, aurten ere eguraldi ederra balitz bezala yendeke-ta izigarria bildu da Elizondo'n.

Emen ikusi ditugu Baztan-Bidaso'ko yendeak eta bai Lapurdi eta Baxenabarre'koak ere; deneri gure zinezko Ongi Etorria.

Merkatu plazanazienda aunitz eta klase onekoak, Iruñe, Luzaide, Araitz eta leku aunitzetako tratulariek beren aziendarik oberenak Elizondo'ra ekarriak zituzten emen saltzeko naikeriarekin, bai omen ziren plazan guttinetik 140 bei eta oietarik ogeitamaren bat pixkat goiti beiti saldu omen zituzten. Beiek arrakesta aundia zuten. Zaldi eta asto multzu bat ere bazen.

Emen aziendeen sal-neurriak

Aintzinerako bei ernariak. 28.000 36.000 pezta bakarrak.

«Pyrenaica» bei gorri antzuek. 20.000 - 28.000 pezta bakarrak.

Beiak beren aratxearekin. 36.000 - 40.000 pezta bakarrak.

Esne beiak. 21.000 - 29.000 pezta bakarrak.

Mige ernariak. 17.000 - 23.000 pezta bakarrak.

Aragitako zaldiak. 8.500 - 12.000 pezta bakarrak.

Pottokoak. 8.000 - 12.000 pezta bakarrak.

Astoak. 2.000 - 5.500 pezta bakarrak.

Ikusgarrien artean baginuen Antxitoneko trinketea bi pilota partida eskuz. Lendabizikoan, Andueza eta Egiuren gipuzkoarrak, Laduche eta Sein garaitu 40-36. Gipuzkoar oiek badoazi aintzinat, pilotari politikak dira eta trinketeko xikanak ongi dazkite.

Bigarren partida arras atakatuia izan zen. Behengaray eta Etxart arizanak dire Etxegoin eta Etxemendi'ren kontra. Guduketa ortan adoste aunitz egirik azkenean 49'ra berdindurik 55 tantotara luzatu zuten, gero Behengaray eta Etxart'ek gaina artu 55-51.

Partida gustagarriak eta yende asko trinketea. Urriko feriak iraganak dire eta oraintxe bagoaz gainbera negu aldera.

IZETA

SUNBILLA

LANTEGIAK

Erritik yoaitea aunitz beartuak daude, bertan ez baita denendako bizibiderik. Berrogei ta amasei mutil baño geiago Estados Unidos'ko mendietan artzai daude. Badire neskatxa bat baño geiago ere Franziko ta Espainia'ko bazterretara irabaztera yoan.

Sunbilla'n bertan lantegi berriak izateko ameika pauso ematen ari dira erriko agintariak, baño batez ere Alkate Yauna. Orregatik sunbilla-darrak konten dira lantegi bat ia egiñik dagola ikusi dutenian. Arraiak konserban sartzeko lantegi, edo fabrika bat egiten ari dira, 30 metro zabal eta 60 metro luze eta 10 metro beitik gora ditu. Bideberri baztarrean dago. Oriñela-baitaren azpian.

Bertze lantegiendako, Indina-baitako lur batzuek erosi dituzte, bai Garaiko Bordako azpiko lurak ere. Lantegi au arrizuri, edo marmol arria apaintzeko izanen da; ogei ta bost langillentzako izango omen da.

«BIDASOA»



BERA

Joaquin Aldabe'tar beratar jatorrak, emendik urrun, Oriotik illeko «Principe Viana» onetan, berso eder-politak azaltzen badabil, ta ne-

NEKAZARITZA ETA ABEREAK.



IGALI ZUGAITZAN ZAINTEA

Neguan egiten diran garbitasunak igali zugaitzetan, egin-bide onena da, moxorroak eta beren arraultzak galtzeko. Ortarako, nai ba degu lortu, edo iritsi, garbitasun oietan onurarik aundiena, bear giñuke asi, orain bertatik, zugaitzari ostoa erortzen ari zaizkion garai ontan.

«Bordeles» pozo salda deitzen zaion ura onekin, 100 ko 3 an (100 l. urari 3 Kg. auts naasiaz), edo beste salda «Sulfokálcico» deitzen danakin, 100'ko 3'an au ere, ongi-ongi bustiaz ditugun landareak. Baño aurretik zugaitzari kendu bear giñizkioke adar igar guztiak, bereala erreaz. Adar orretan egoten dira geienetan moxorroak ezkatututa negu guztian, eta kendu eta erre ezkerre garbitasun aundi bat egiten bai da. Gañera adar buruak zenbat eta garbiago dauzkagun, ordun da erraxago egiten da nai degun bustiketa. Gero pozo salda gutxiago bear degu ta txanpon gutxiago ere xautu.

Adar iarrak kendu ta esandako bi salda orietako batekin, ongi busti ondoren zugaitz guztia, lurrean dauden ostoa bildu txearo-txearo, ta lurpean sartu usteldu ditezen ta ala moxorroak ez dezaten izan non ezkatuta, uda berrian beren arraultzak jartzeko. Udazkeneko garbitasun onek, ariña izan arren, asko laguntzen dio neguan egin bear zaien gañerakoari, adar kimatze eta pozo salda bizkorakin emango daizkiogun eginbideari.

Negu gorria igaro ondoren eta izerdia igitzen asi baño illabete lenago, egin bear zaio neguko mugarrak eta zugaitzari, ongi begiratuaz, zer adar kendu (igarrak beti danak, autsiak ere bai) bere apaintasunarentzat, bai baño igalia eman bear lukena utzia, mugaratzall eonak egiten duen antzera, dakilakoz buruzia eta aizkora non sartu, bi gauzak batean egiñaz, landarea apaindu eta igalia emateko eran jarri. Ongi adarkatu ta gero, bustialdi bat ona, edozein salda otako batekin: «Wolck invierno múltiple» 100'ko 3'an. Au egiten du «Macaya»'k. «Cuproclor edo salda «sulfocálcico» 100'ko 4'an. Egiten du «Medeno»'k. «Viricobre 50, Sofril Bimicronizado, Exalo». Egiten du «Condor» ek.

Sendabide au da garrantzi aundikoa, esango giñuke aundienekoa, ba nolabait esateko moxorroa lozorroan dagoala jotzen baita, eta danak ez ba dira ere, asko beñipin, arraultzak jartzeko ez dirala gelditzen baidira, ta orgatik da garai ontako lana onuragarria.

Landareari etzaio zaindu bear bakarrak, pozo salda ta autsakin, bearezko bidea gaur kimaketak, esan degun bezala. Bear ditu beste esku-erakutsi zerbait, nai ba degu, nai degun bezala, uza on ta ugariak bildu ta etxeratu. Igali ona eman bear dun zugaitzak jan bear du noski aurretik, bestela gutxi ta txarra emango du. Sabela ongi beatek erabiltzen ditu oñak, eta ez espartzin berriak, esaten dute erdeldunek. Bota bear zaio lurrari ongari ona ta bere garaiean, bai ukullukotik bai autsetatik. Ara emen zenbat eman litioken. 100 m².ko 300 Kg. ukullukotik; au neguan eta lurperatuaz azal xamar bada ere, baño beti estaliaz. Ukullu ongariaz gañera, 2 Kg. autsa «superfosfato» ta 1 Kg. potasa 100 m².ko. Au ere neguan ta beti ongi estaliaz lurraraz.

¿Non bota, edo zabaldu, ta nasi? Askok uste dute ongariak bota bear zaizkiola zugaitzari ondoan. Ez, ondoak ez dauzka bertan zaiñiak, bai ordea adarrak bezala zabalduak, eta orgatik, landare gaztea ba da metro erdi bat eta zugaitz egiña ba da metro bat gutxienda ondolik alde, naasi bear zaizkion ongariak.

Ez luzatzeagatik emen uzten degu gaurko lantxo au; baño udaberriko ta udako lanetaz zerbait esango degu ere bere garaian eta toki ontan bertan.

JOSEBA IMANOL

gargarria da, emendik, Beratik, inork ez edatze esku bat berari, emengo berriak adieraziz, eta orren-gatik, inor ezta bertzerik, ni gaur asitzen zerbait erran naiean, «Larun» izena artuaz; Larun mendia baida Bera'ko erriari, bere izakera ematen diona.

Nor ez da mendi orren tunturru-igan eta an, goitik, ikusten diran oro arrigarriak diralata, pozez atsegindu? Mendi au da, erran-genezake, euskal errian diran menditik, ederrenatik bat. Mendi onek elkartzen ditu alde ontako eta bertze aldekoak. Nafarran dago, bañan ageri da Gipuzkoatik, Benabar, Zuberora, ta Laburditik. Bertze mendirik ez da inguru ontan, ainbat ozte, edo yendia bere lepo gañean izaten duanik. Udan, pillaka bere bizkarrean artzen ditu. Askain erriatik aterata, goitiraño jatsotzen dan burnibidea badu; eta arat ta onat, 5 eta 6 aldiz egunean, bide orretatik fonicullarra oztez (yendeaz) beterik ibiltzen da. Bañan ez bertze aldetik (Franzitik) bakarrak igotzen dira ozteak mendi orretara, baizik Iruñetik ere, Donostitik eta Bizkaiko erriak biribil aundietan, edo autobusetan ez dira gutxi Bera'ra etortzen direnak, gero bi orduz oñaz emendik Larun-untz yuateko. Ta bidean eramaten dituz-

ten neke eta izerdiak bai pozez txukatuak gelditzen omen dira, an, goitian, azaltzen diran ikuste arrigarriekin: ikusten baidira Belate, Arikoki mendiak, Ondarrabi, Irun, Donosti, Doniane, Askain, Biriatu, Bayona ta gañekoak.

Ez da arritzekoa, Iparragirrek alako mendiak eta zelayak ikusirik, bere bertsuetan kantatzea: «ara non diran mendi maiteak, ara non diran zelayak»...

Eta ez da arritzekoa, an goyan, mendi gañean, lenengo denboratan, Irutasun Deunari, Trinitate Sainduari, orduko kristau zarrak eraiki, edo altxatu ziotela elizaxo bat, an, goyan, agurtzeko Jaun-Goikoa ain gauza eder, inguruan, gizonen alde ipiñi edo paratu bai-zituen...

Irutasun Deuna egunean meza eder bat ematen zan, Larun mendi mugako erriko apezak txandatu. Ala urte batean Berako apezak, bestian Sara'koak Askain'go ta Biriatu'koak azkenian. Miña artzen da gogoratzen mendi otan izan ziran gerrak, ainbertze alditan, autsi zutela erri oyetako Kristau elkartasuna, ta elizaxo ura utzia ain luzaro, denborakin erori zala oso ta betiko.

LARUN



NAPARROKO BERRIAK

USOAK.—Aspaldiko partez, uso pasa ona izan dute aurten ehiztariak. Luzaiden konten ziren. Zaharrek zioten beste ainbestekorik ez dutela gogoan. Lauetan ogoi pezeta balio izan du bakoitzak; saltsa bertalde... Berriz ere, eta Mañex an bada, Gañabideko «puesto» errekesta ez da ttipituz joanen.

Echalar aldeko sareak urriaren ondar egunak eta azaroren sarrera izan dituzte oberenak. Urriaren ogeitamekan 87 dozena bildu zituzten. Alare, ihazko marka urrun zen: 140 dozena egun batez.

URAK.—Azarora negarti sartu zaigu. Ur-estuak izan dira bazterretan. Batez ere Sakana (Barranka) aldean, Tudela eta Estellan. Bideberriak ere estalirik egon dira zombait pundutan.

Bestalde aize latzak. Arakilen «Burundes»ren autobusa bide-tik atera ta, uzkali dute. Txapelak arrapatu balitu!

IRUÑEN, berriz, urik gabe ibiliak dira. Larrainako inguruan gerritu ta, erdia ustu zaie. Etxez etxe kamionekin erematen zuten ura. Arte ortan sortu dira beste istillu frango. Eugi'n uarka (presa) egitekoak baidira, lurren jabeak diote lehenik lurra erostea dela, eta gero ordaintzea. Lur oberenak galtzen dituztela, eta beste bizimodu bati lotzekotz dirua behar dutela. Iruñeko Ayundamenduak badazki gauz oiek; eta bestela Eugin esango dizkiete.

AYUNDAMENDUAK berritu beharrak ditugu aurten. Sasoineko oztasuna berekin dute gauz auek. Udan egiten ahal dituzte beste aldian. Emakumezkoen aldi dugu oraikoa. Elizondoko Ana Mary Marin izan da Nafarroan bere izena eman dutenak. On da astea. Nork daki, zombait etxetan gertatzen den bezela, Erriko-etxea ere ez luketen gizonen baño obeki gobernatu!! Ikusi bientzat...

DIPUTAZIOAKO buruzagiak ere Madrilen ditugu. Gorabera aundiak daramazkete esku artean. Gure Lege-zaharra eta Madrillgo jokabideaz buruz buru izketatu ondoan ageriko da zertan gelditzen diren. Nolanahi dela esku onetan utzia dugu gure auzia.

YABAR.—Ezkil-jotzalea ez da musikaria. Alare, ezkil soinuak badu batzutan bere musika; eta ongi jotzeko behar da esku berezi bat. Labeguerie ospetsuaren doña eldu zait gogora: «Ezkilaren Kantua: dilin, dalan... Kanta beza ezkilak menderen mendetan, Kanta beza bizia Eskual herrietan».

Ezkil-Jolarien sayo aundi bat egitekoak dira orai. Nun eta Eskualerrian. Yabarreko ezkilak zaharrei eskuaraz itzegiten die; gazteak utzia dute eskuara. Pixka pixka hilko da. Errigo seme guzuen begititik negarra ateratzeko moduan jo behar lukete Arakilgo ezkilak eskuararen eriotza.



Euskaltzaindiaren Batzarrea Mañaria'n

URRIAREN 23 garren egunean ospatu zen Bizkaiko errixka polit hontan Ebaristo BUSTINZA, (Kirikiño izen ordez geiago ezaguna), zenaren ehun urteurrena. EUSKAL AKADEMIA-k eta GEREDIAGA elkargoak antolatu zuten euskal jai eder bat. BUSTINZA, herri hortan sortua, euskal idazlari handia izan zen, leen lerroko izkiriiazaillea, eta EUSKALZAINDIAK bere sorterrian bildu nai izan du, eta itzaldi batzu entzun arazi, haren berriak eman ez.

ABARRAK deitu bere liburuak gutti ezagunak dira, gure jendea irakurgabea delakotz, funtsean: eta alde, bizkaieraz daudelako. KIRIKIÑO-ri goratzarrek egiazkoena, bere ipuin xoragarriak argitara ematea litzake, ezen edizioa agortu zen aspaldi. Gipuzkeraz ere argitaratuak badaude 5 ipuin urragarri, izenburu harekin; EUSKALZAINDIAK egin liburuxka ttipi hori, aitzitik, ezta oraino agortua. Urrengo aldiaren batean argitara emanen dugu ZERUTAR BAT, DEUN IZATEKO BIDEAN, edo halako kontu farregarri, eta bide batez funtsezko diren hetako bat, irakurlearen atseginerako.

Gizon bezala ere handia izan zen KIRIKIÑO: orai mintza aal balekigu, dudarik gabe, anpuruskeriak, zikoiz keriak eta espantak gutiesten zituela, ikusiko ginuen: gizon apala beraz. Euskalezale eta izkiriiazaillea bezala utziko dugu oraikoan. Bere goreneko personalitateari eta nortasunari xoilik, ohartuko natzaio.

Zentzu haundiko euskalduna izan zen, eta on litzateke oroitzera, bera igitu eta ibili zen aro zaratatsu haretan, etzuela bein ere burua galdu; burua otz eta bihotza bero iduki zituen beti. Bere liburu baten aitzin solasean dio: bere ipuinak ezdirala izkiriatuak, ehun urte geroagoko euskaldunendako, gaurko euskaldunentzat baizik, geienek dakiten izketaz, geienek aditzeko gisan. Denbora haietako, marka arrigarria da.

Herriko euskara jatorra erabili zuen, bere inguruko buru bero eta berrizale batzueri kasurik egin gabe. ABARRAK izeneko bi liburu egin zituen, eta aldizkarietan, aunitz artikulo. BIGARRENGO ABARRAK izeneko aitzin solasean, I. Aranzadik dio, leenxago aipatu haren apaltasuna eta eskuzabala adiarazteko; «Gizon ona, onik izan baldin bada, gizon apala, ixila, goitik beera beatzen inoreri ausartzen ez zena; diruari eta aberatsari bakarrik kopeta zimur paratzen zakiena».

MAÑARI-ko besta-bilkura hortan, euskaltzain jaun batzuen hitzaldiez kanpo, ONDARRU-ko teatrolari trebeek, Bustinzaren bi kontu irringarri bota zizkiguten, herri hortako Zubikaray idazlari ezagunak, teatrorako antolatu eta egokituak. Goizeko Akademia biltzarre laburrean, Madrilan eskatzeko den Eskolategietan sartu bearra dagon bi-eleketa eskea, laster bururatzea erabaki zen.

A. APAT ETXEBARNE

{«Diario de Navarra»-ko «Nafar izkuntzaren Orria» delakoan argitaratua}

KISU LABEAK (II)

Aunitz izerditu ta nekatzen den gizonak behar du ongi mantendu, baina ortan eztago bildurrik eta langileek auldu ez daitzin yateko ta edateko ausarki izaten da, argiasetik otamenarekin asita gero gosaria, ameketakoa, bazkaria, merendue, afarie eta ortaz landara an beti badituzte ogia, gasna, zardin ta xatoa ardoarekin, au maiz kurri da-

Zortzi egun oietan lanean arizan diren guziak an elkarturik, 25 edo 30 gizon, barrideak, yendakiek, adiskideak denak mai inguruan yarririk, sasoko gizon gazteak, lagun onak eta denak yan gogo ederrarekin.

Etxeko yaunak maia bedeinakatu ondoren afariari asmenta ematen zaio, or izanen dituzte: Olo salda, Txixirioa (garbanzoa), Buru arraiak,

kantak, Txirrita'ren bertsoak eta ainbertze kantu zahar, zenbaitzuek ere bertso berrietan ari dire olakotan denak bertsolariak baitira. Goizeko bi orduetan SORGIN-AFARRIA, ortan ere baratxuri salda piperr miñarekin eta bildoskie, berriz ere yan eta edan gogo onarekin egiten dutela, ondolik berriz ere kafe ta likurrak olaxe kantuz eta sasoin ederrean gau guzian, pinpirrinduak eta aski panparrotuak geienak aurkitzen direla.

Ollarraren kukurruku ozenak adierazten du erretiratzeko ordua dela eta etxeko yaunak azken agurra eta eskerrak denei eman ta ondoan gizonak etxe abien dire. Badoazi bidean batzuek kantuz, bertzeak elean, eta geienak pirriufaka.

Etxeko yaun-andereak atsegiñez beterik daude bozkarioa nabari dutela, neke ta kezka guziak suntsiturik lanak ongi bururatu baitira, orai bai, orai trankil eginen dute lo. Landa guziak kisuz ongi ornituak, orai Jainkoaren laguntzarekin zitu ederra emanen dute.

Gauaren ixiltasunean eta ea argiasteen urrunera kantu bat aditzen da:

Goazen etxera goazen etxera
Erretiratu ordu da
Gizon deboxak argi astera
Erretiratzan baitira.

Gero irrintzi indartsuak bazter guziak dituzte inarosten eta bai gisa berean ere mendiko oiartzunak bereala dute yardesten. Gero ba-kea...

ANZANARRI



Kisu labea erretzen ari den bizkitartean, langilleak atsedendaldi goxoan.

bilena gizonen eztarriek idortu ez ditezen. Ezbeharren bat gertatzen ezpada eta arriak ongi guritzen direnean, labea italtzera uzten dute. Beitiko agoa autsi ta arkutik barnera legarra botatzen dute su ondarrak ongi itzali artio. Iru egunez uzten dute arriak oztu daitzin eta azkenean etxeko nagusiak agintzen duenean, kisu labearen deskargan asten dire. Beiak uzterrian orgarekin ta beorra donberoarekin arat unetak aginik kisu arria puskaturik landa ta alorretan edatzen dituzte. Lana bururatu ta ondoan atsedend pixka bat arturik gizonak beren etxetara yoanik beren burue ongi garbitu ta frexkatu egiten dute eta ilunabarreko itzultzen dire baina oraingoan ez lanera besta egitera baizik.

Etxekoandreak afari ederra antolatu du, ortarako artaldeko lau bildots oberenak il dituzte, kislabe deskargako egunean bazkaltzeko ta egun guzian zikiroa izaten dute baina afaltzeko bildots guri guriak.

Xuri ta Beltx, Umerrie (bildotsa) Ollaskoa, eta oiek guziek ardo gorri naparrarekin ongi bustita eta azkenean GAZTANBERA, au barneko ziloak ongi betetzeko, gero kafeak ta likurrak. Sabelak ongi ornituak bai alafede! Lagunartean bada umorea denak solasturi, kantari ta bertsolari, zer irri ajatak eta zer sasonia, an agertzen dire Elizanburu'ren



Kisu labearen gorapea eta arkuaren erdian «agoa»

Asteoroko onek euskeraz izkribitzen nai duten euskaldun napar guzien idazlanak, edo izkribuak, onartu eta argitaratuko ditte bere orrialdetan. Idazlanak eskuz ala "makinaz" izkribituak izango dira. Edozein gaia ja kingarri eta intresduna izan ditekete. Berdin zaio izkribulanak izen-deiturarekin sinatuak (izenpetuak) daudela, ala nola izen ordezko batekin bialduak. Alde aurretik bere geroko lankidei, bere euskal idazle berriei eskerrak agertzen dizkie.

Si desea recibir esta publicación en su domicilio, exclusivamente dentro de Navarra envíe este Boletín a (Institución «Príncipe de Viana» - Calle Ansoleaga, 1) - Pamplona.

BOLETIN DE INSCRIPCION

Don
con domicilio en la localidad de
Calle N.º
desea recibir a domicilio y gratuitamente el Suplemento «PRINCIPE DE VIANA».



—Ortako azukere-huntzia ustuko nuke!

Botikan:
—Eztula kentzeko karameloak, mesedez.
—Zuretako dituzu?
—Bai.
—Eztula daukazu?
—Ez, baiña arrebari etorri zaio eta aurrea arrapatzeko...
—Eztulari?
—Ez; arrebari.

IRRI SOLAS

Aragi saltzaleak bere semea medikura ereman du. Sendagilleak esaten dio:
—Astean bi aldiz pizatuko duzu...
—Bere ezurrekin?

—
Alsalde guzian bide baztarrean dabil neskatz gazte bat. Mutila konturatu da eta esaten dio:

—Zerbait galdu al-zaizu?
—Bai; bonbon bat.
—Bonbona? Goazen eta amar erosiko dizkizut.

—Eskerrik asko; galdu dutana nahi dut.

Mutla ere asi da bonbon bila. Ordu laurden baten buruko aspertu da:

—Aizu! ez duzu atsalde guzia bonbon baten gatik emen galduko? Atoz nerekin eta nahi dituzun guziak erosiko dizkizut.

—Eskerrik asko, jauna zure bonbondatez; baiña nere bonbona nahi dut. Ari itsasiak dira nere ortz berriak.

Aitak: —Aizu, Mattin! Ongi partitu dituzu arrebarekin nik emandako iru «Ghupa-chupak»?

Mattinek: —Bai, aita! Iruak bi lagunendako ez baizen ongi eldu; lehenik neronek bat jan dut, eta gero beste bana.

—
Aurrak gatz-untzia itzuli du mai gainera.

—Agoz bilduaztea merezi huke
—esan dio amak.

Axular Premioa

«Diario de Navarra», Iruña iriburuko egunkariak sari bat, eratzen da, leen maillako Nafarroko Eskolategietan, 1.500 eta 750 pezetako AXULAR izeneko bi sariekin, euskarazko ipuin edo erri kontu oberenenendako; euskal idatzlari nagusi aren oroitzapenetan.

Sarian parte artzeko, baldinkizun ok bete bearrak dira:

I. Sari untara sar ditazke: eskolategiko adinean dauden aurrek. Euskaraz idatzi lantxoak igorriko dituzte, «Diario de Navarra». Pamplona. «Para el concurso de cuentos vascos» izenburuarekin.

II. Lanak, goienaz, bi orrialde edo kuartillako edadura izan bearko du. Maisuak, Apezak edo adineko batek bearko du, bere izenekin, aurraren idatzia egiztatu. Lanaren beitiko aldean aurrak ere, bere adina eta izendeiturak ezarriko ditu, erriaren eta etxearen izenekin batera.

III. Kurso azkenean lantxo obereneri Axular Saria emanen zaizkie, bai aurrari, eta bai maisu edo gidariari ere. «Diario de Navarra» egunkariaren Euskal orrialdean, aldi bakotx argitaratu diran ipuin aipagarrienen ere, 150 pezetako sari bana izanen dute.

IV. Sariako ipuinak, edozein gai izan ditazke: ala kontu, erri oitura edo kanta, iosteta, ibillaldi, edo gertakari. Aurrek berek idatziak izan bear dute, inoren laguntzarik batere gabe.

V. Aurrek bear dute, mintzo diren bezala idatzi. Geiago kontu da sarirako, errateko, airea edo gatza, utsik gabeko idatzitzeko era baiño.

VI. Sari untarako idatziak igortzeko epea. Garagarriaren 30 egunean bukatzen da. Saria emanen da, eta argitaratuko, Nafarroko Zaindaria den, Jaundone Fermiñ bezpera egunean.

IRUÑA, 1966 urteko Urrillan.

Oarra: Aurren izkribulanak Apezak, Maisuak, edo Adinekoak, oraidanik (Azaroatik) Garagarriarainoko edozein egunean asi ditezke bialtzen «Diario de Navarra» egunkariari (Zapateria Kalea-Iruña).

«Diario de Navarra»-ko «Euskal Izkuntzaren Orria» delakoan lanak etorri alan illean bitan (bigarren eta laugarren ostegunetan) argitaratuko dira.